



[www.pixkanakakaskari.org/hazia](http://www.pixkanakakaskari.org/hazia)

**Merkatuko erreferentziak**



Eurostoxx50: **-%19,7**  
Ibex35: **-%7,06**  
Bonoa 10urte: %2,45  
KPI: %3,8 (maiatza)

**2022 metatutako emaitza**

**-%2,74**

**Zorroaren banaketa**

**Errenta finkoa** %72  
**Err. aldakorra** %21,9  
**Inb. alternat.** %6,1



**Falta zitzaiguna...**

Joan den hilean burtsen lurreratze leunaz hitz egin genuen, baina hilabete honetan merkatuak pikutara joan dira.

Burtsek behera egin dute eta interes-tasak urteetan ikusi ez ditugun mailetara igo dira. Analistak atzeraldiaz hitz egiten hasi dira, eta udazken mugitua izango dugula. Gogor heldu beharko dugu ekaitzari aurre egiteko.

Uda ona pasa!



## Gure BGAEen kudeaketa

Merkatuak azken hilabete hauetan ez dira etenik ematen ari, eta aurreikuspenak ez dira onak epe laburrean, baina gure ikuspegia BGAE bat epe luzera kudeatu behar dela da, hainbat gauza kontutan izanda.

- !** **Errenta aldakorra:** egungo beherakadek zorroaren balorazioari kalte egiten badiote ere, uste dugu garrantzitsua dela esposizioa handitzea epe luzerako estrategia batean, batez ere aurretik urte asko geratzen zaizkien eta metatze-fasean dauden bazkideentzat.
- !** **Errenta finkoa:** interesen igoerarekin, gure errenta finkoko zorroaren balorazioak sufritu egiten du, baina aukerak sortzen dira epemugara iristen diren inbertsioak interes tasa altuagoetan berritzeko eta iraupena handitzeko.
- +** **Inbertsio alternatiboa:** hemen ere posizioa handitzen dugu. Inbertsio alternatiboak merkatuetatik deskorrelazioa eragiten du, besteak beste, epe luzera inbertitzeagatik likidezia-primei esker.
- +** **Gure BGAEak sarrera bermatuak ditu:** 2. planak ekarpen egutegi zehatz bat du, merkatuen mende ez dagoena eta posizioak desegin behar izan gabe inbertsioak egiteko aukera ematen diguna.



**PKk sinatutako Kutxabanken III. Hitzarmen Kolektiboan jasotakoaren ondorioz, Kutxabankek 3.400€ baino gehiago jarri behar ditu urtean Haziako 2. planeko bazkide bakoitzeko.**